

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (EHHA): I. eta II. liburukien aurkezpena

AREJITA OÑARTE-ETXEBARRIA, Adolfo
Zuzendari akademikoa

Ibilbide luzea egin ondoren azaltzen da Euskaltzaindiaren EHHA egitasmoa plazara, beronen lehen fruituak erakustera, lehen liburuki biak.

Urrun gelditu dira harako lehengo mendeko 80gneko urteak, Euskal Hizkeren Atlasa egiteko bideak 1983. urtean urratzen hasi zirenekoak. Urrun, harako Atlasa egiteko metodologia landu zenekoak: aurretik horretan jardundako beste batzuegandik ikasi, inkestak prestatu, euskal hizkeren ikuspegi osoa islatuko zuten herriak eta lekukoak hautatu, lan-taldea osatu eta trebatu, nori bere zereginak izendatu eta beste mila ertz landu eta leundu behar izan zireneko urte zaharrak.

Dialektologia batzordea izan zen, Markina-Xemeinen izan ziren Barne Jardunaldietan egitasmoa onartu zuena, eta ondorik bidean jarri zuena, Jean Haritschelhar buru zela, eta Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain arduradun hasiera bertatik.

Urruntxo daude halaber, inkestaldia burutu zeneko 1987-1992 bitarteko bost urte luzeak. Inkestak egiten jardun zutenak unibertsitateko irakasleak eta lizentziatuak ziren, filologia arlokoak: Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria –artean biak unibertsitate irakasleak–, Isaak Atutxa, Izaskun Etxebeste eta Koro Segurola izan ziren, izendatu berri ditudan arduradun biokin batera.

Atlasaren neurriari antz bat emateko, inkesta-gidari gain-begirada bat ematea baino hoberik ez dago; ikertzaileok lanean hasi eta urte batzuetara

argitaratu zena (1993)¹. Guztira 2877 kontzepturen galderak jasotzen ditu galdesorta horrek: lexikoari buruzkoak gehien-gehienak, 2162; morfologia-
ren gainekoak, izen eta aditzarenak ere asko: 596; sintaxiaren gainekoak,
62, eta azkenik fonetikazkoak, 37. Hala bada, hiru milatik hurreko kopuru-
ra heltzen da galdetegia.

Inkestagileok ez eze, lekuan lekuko informatzaileek ere ez zuten eroapen,
egonarri eta patxada makala hartu beharko itaun bakoitzari eta guztiei
erantzuteko. Euskal Herriko 145 herri edo tokiren ordezkari ziren lekukook:
Bizkaian 36, Araban 1, Gipuzkoan 36, Nafarroan 27, Lapurdin 15, Nafarroa
Beherean 18 eta Zuberoan 11, Eskiula barne dela.

Inkestaren emaitza guztiak grabazioz jaso ziren. Horren guztiorren emai-
tza da, Euskaltzaindiak bere artxiboan gaur gorderik duen 4000 ordu ingu-
ruko altxorra. Euskarri digitalean eta berme onez gorderik dago ahotsezko
altxor hori. Eta horretara jo izan da ikerketa aldian behin eta berriro, zertan
edo hartan zalantzarik gertatu denean; testu grabatuak ez baitu hutsik egi-
ten; hark salatzen du hitz, hitz-segida eta esaldi bakoitza zelan ahoskatu
zuen lekukoak, eta beraz, nola transkribatu behar den.

Inkestagileek berek beharreko hurrengo eginkizuna zen, erantzun-
koadernoetan eskuz transkribatzea hitzez entzuna, ahotsez jasoa: herri
bakoitzeko bost erantzun koaderno, guztira 725 edo horrenbat. Erantzunak
fonetikoki transkribatzen ziren, eta gainetiko oharrak sistema ortografikoaz.

Oharrak aipatu ditut; eta zer jaso da oharretan? Lekuko informatzaileak,
kontzeptu baten gainean eskatutako erantzunaz gainera, eta harekin batera,
isuri duen informazio bestelakoa, informazio osagarria. Hor denetarik da.
Batzuetan informazio baliotsua ere bai: gai edo izen baten inguruan gure
herrietan diren iritzi-usteak, azalpen-argibideak; hitz batzuen inguruko
atsotitzak edo lokuzioak, data batzuen inguruko errezitatu edo kantuak,
baita ipuin eta pasadizoak ere.

Informazio osagarri legez batu den «herri-jakintza» horretarik, gutxi bai-
no ez duzue aurkituko paper euskarriz atera diren edo aterako diren liburu-

¹ Aurrekoetxea, Gotzon, Videgain, Xarles (1993): «Euskal Herriko hizkuntza atlasa: galdesorta /
cuestionario / questionnaire», *Euskera* 38, 529-647.

kietan, neurritz gorakoa eta helburuez gainetikoa izango bailitzateke euron edukia. Agian sareak eskainiko digu aurrerago informazio hori eskura izateko abagadunea.

Datuen informatizazioa etorri zen ondoren: 1992. urtean hasita luze jo du prozesu horrek. Informatikaren transformazioak bete-betean harrapatu zuen Euskaltzaindia ere, eta aldakuntzaren prozesu bizkor horretan programa batetik bestera jauzi egin eta datuak igaro beharrak nekeak eta lorrak eragin dizkio egitasmoari, baina azkenean burutu izan da 2008rako.

Datuen informatizatze hori, lehenik, Beñat Oiharzabal batzordeburu zela finkatu zen, gero Andolin Eguzkitzaren zuzendaritzapean segitu, eta gure aldion amaitu. Horretan jardun dutenak, Izaskun Etxebeste eta Koro Segurola Donostian, Xarles Videgain Baionan eta Gotzon Aurrekoetxea Bilbon izan dira batez ere. Prozesu horri bere azken txanpan belaunaldi berriko lankide bik bultz egin diote: Amaia Jauregizar eta Gorka Intxaurbe. Guztiok euskal filologia arloan jende ikasia.

Jasotako erantzunak eta oharrak datu-base informatikoak modu fidagarrian sartzea ezinbestekoa zen, ondoren etorriko zen elaborazio prozesua ziurtasunez eta fidagarriro egingo bazen, eta orain argitaratzen den edizio-rako bidea prestatu.

Edizioaz zer esan: gaur aurkezten ditugun liburuki biok dira hurrengo etorriko diren beste hamarren aitzindari. Eurotan funtsezko informazio bi eskaintzen dira kontzeptu bakoitzaren inguruan: lehenik, lurraldeka eta herri-herri jaso den erantzuna -edo erantzunak-, era fonetiko-jasorik, eta bigarrenik, mapak, non hitz eta aldaera mugatuetara bildu diren lematizaturiko erantzunak, finkatu lema bakoitzari kolore bat izendatu, eta kolore horien arabera mapara ekarri diren; horretara ikertzaile edo irakurleak erantzunen ikuspegi grafiko eta didaktikoa izan dezan.

1998an abiarazi zen elaborazio prozesua, diogun bezala, datu-base informatikoa zimendu zela. Horretan lan-talde ugaria ibili da. Hurrengorik hurrengo: Jose Antonio Letamendia, Iñaki Camino, Jon Irigoras, Juantxu Rekalde, Aitor Iglesias, eta azken aldion, iaztik aurrera, lehen aipatu lankide berriak.

Elaborazio-egileon proposamena zuzendari-arduradunon eskuetara etorri ohi da ondoren, eta honen iragazkitik irazi eta dagozkion oharrak jaso ondoren finkatzen dira behin betiko mapak eta material osagarriak.

Lehen liburuki biak inprimaturik plazaratzen ditugu gaur hiru euskarritan. Irudi zahar bat erabiliz, esango dut hamarren asko ordaindu ondorengo hasikinak dituela hauek Euskaltzaindiak. Berez jakinda inor ez gara mundu honetara; ibili-ibili ikasten dugu gauzak egiten, eta ondo egiten. Euskal atlasa asmo berria zen oraindino 80gn hamarkadan; horretan aurrez gutxi ibilia berori burutuko zuen lantaldea. Beste batzuen esperientziak jaso eta beregandu ziren batetik, baina batez ere ibilian ikasi zen, eta ondo egiten ikasi. «Arin eta ondo antzina haserretu ziren» dio gure esaera batek. Eta EHHA-ren gidariok beti izan dugu argi, azkar egiteak baino ondo egiteak gehiago balio zukeela. Ondo genekien honen neurriko beste Atlas egitasmo bat ez zela behingoan eta geroetan ere egingo. Ondo behar horrek gidaturik aitzinatu ditugu geure pausoak, eta gure Erakundearen eroapenari eskerrak, diodan bidenabar.

Ez naiz liburukion edukietan luzatuko. Papera astun egiten bazaizue, Euskaltzaindiaren webgunean izango dituzue, argitaratu ahala, liburu bakoitzaren edukiak PDF formatoan kontsulta egiteko eran. Eta mapen aurkibidea ere bai, non bilaketak egin daitezkeen galderetatik, erantzunetatik edo lemetatik abiatutik.

Azken gogoeta bi. Bat. Euskaltzaindiak esku artean duen EHHA egitasmoa bakarra eta ordezka ezina da: hilak dira horko informatzaileetarik asko, zaharrak baitziren galdeketa egin zen aldian; euren hotsak atzera jasotzerik ez dago; transkribatzen, informatizatzen, digitalizatzen, garraioak egiten, edukiak elaboratzen eta azkenean, liburukietan edo sarean egoki taituzten egin den ahalegin eskergak ere berdingabeak dira. Berriro diot, nekez egingo da beste honenbesteko ahaleginik Euskal Herrian. Eta egin badadi ere, ondoko belaunaldi baten testigantzekin izan beharko du. Laurogehigarren hamarkadako altxorra, jasorik, sailkaturik eta iraupena bermaturik dugu, beraz. Ondoko belaunaldiek eskura izango duten altxor eskerga.

Etorkizunari buruz bigarren gogoeta: EHHA egitasmorako jaso diren edukiek beste ikerkuntza batzuetarako ere bideak irekitzen dituzte: batetik,

lehen aipatu dugun herri-jakintza esparruko material franko gorderik dagoelako bere baitan, eta bestetik, ikertzaile gazteagoek, *corpus* horretako edukiei tira eginez eta eduki berriekin konparatuz, ikerketa berriak etorriko direlako ondorik; monografikoak batzuk, zabalagoak beste batzuk, lexikografia dela, morfologia edo sintaxia dela, edo berdin fonetika, etnografia edo beste arloren batekoa.

Eskerrak eta ohore EHHAREN kide eta partaide izan zareten guztioi. Zeuen gogo eta ahaleginari esker aurreratu du Euskaltzaindiak eta alborokea egiteko eguna da gaur.

Besterik ez. Eskerrik asko.